



**202. artikulua. Zerga urraketa, autolikidazio edo aitortenak kalte ekonomikorik sortu gabe epe barruan ez aurkezteagatik edo zerga helbidea jakinarazteko obligazioa ez betetzeagatik.**

1. Zerga urraketatzat hartuko da autolikidazio edo aitortenak epe barruan ez aurkeztea, betiere Herri Ogasunari kalte ekonomikorik sortu ez bazaio edo ezin bazaio sortu.

Honelako zigorra jarriko da:

- a) Izaera orokorrez, 200 euroko diruzko isun finkoa.
  - b) Baldin eta aitorten zentsalak edo pertsona edo entitateen ordezkariaren izendapena jakinarazteari buruzko aitortena badira, 400 euroko diruzko isun finkoa.
  - c) Baldin eta foru arau honek 90. eta 91. artikuluetan jasotako informazioa emateko obligazioa betez izaera orokorrez exijitutako aitortenak badira, 20 euroko diruzko isun finkoa aitortenean sartu beharreko pertsona edo entitate berari buruzko datu edo datu-multzo bakoitzeko. Gutxienez 300 euroko isuna izango da, eta gehienez 20.000 eurokoa.
2. Aurreko apartatuan jasotakoa jasota ere, baldin eta autolikidazio edo aitortenak epez kanpo aurkezten badira Zerga Administrazioak lehenago errekeritu gabe, zigorra eta gutxienezko eta gehienezko mugak aurreko apartatuan jasotakoen erdia izango dira.

Baldin eta autolikidazio eta aitorten osatugabeak, zehaztugabeak edo datu faltsuak dituztenak epe barruan aurkeztu badira eta geroago aurretiazko errekerimendurik gabe aurrekoak osatu edo ordezkatzeko autolikidazio edo aitortena aurkeztu bada, ez dira gertatuko foru arau honek 198. eta 203. artikuluetan jasotako urraketak, epe barruan aurkeztutako autolikidazio edo aitortenei dagokienez, eta apartatu hau aplikatuta ateratzen den zigorra jarriko da epez kanpo aitortutakoari dagokionez.

3. Baldin eta errekerimendurik egin bada, artikuluan honen 1 apartatuan jasotako zigorra bateragarria izango da foru arau honek 208. artikuluan Zerga Administrazioaren lanari aurre egin, eragozpen edo aitzakiak jarri edo uko egiten zaionean errekerimenduei kasurik ez egiteagatik finkatutako zigorrarekin.

4. Zerga urraketatzat hartuko da zerga helbidea jakinarazteko obligazioa ez betetzea edo jarduera ekonomikorik egiten ez duten pertsona fisikoek hura aldatzea ere.

Urraketa 100 euroko diruzko isun finkoaz zigortuko da